

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Musukoen edukiontzia Covid-19aren krisia hobeto kudeatzen laguntzeko sortu da; birusa existituko ez balitz gure zerbitzuak ez luke zentzurik izango. Gure helburua erraztasunak eskaintzea da, baina badakigu edukiontzi hauek ez direla erabilgarriak izango gaixotasuna apaltzen den unetik aurrera (hala ere, biztanleek musukoak erabiltzen dituzten bitartean erabilgarriak izango dira). Bestalde, bezero asko lortzea ez dago gure helburuen artean, egoerak okerrera egin duen seinale izango bailitzateke. Beraz, Koronabirusak irauten duen bitartean bezeroak izango ditugu, baina txertoa hedatzen hasten den heinean, gero eta kontsumitzaile gutxiago egongo dira.

Hala ere, edukiontziak Koronabirusa desagertzen denean ere erabiltzen jarrai daitezke, musukoak eskaini ordez, beste produkturen bat jarri daiteke. Alemaniako Pfand birziklatze-sistema ezarriko balitz, onura handiak ekarriko lizkioke ingurumenari. Kutsadura murrizteaz gain, biztanleek dirua irabaziko lukete, eta ingurumen jasangarriago bat izatea lortuko genuke.

Bezeroek edukiontziekin arazoren bat izango balute edo zalantzak argitu nahiko balituzte, gurekin harremanetan jarri beharko liriateke. Horretarako, edukiontzietan telefono-zenbakia eta posta-elektronikoko helbide bat jarriko ditugu, herritarrek gurekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.

